

2017/18 IKASTURTERAKO NAZIOARTEKO MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO DEIALDIA

1.- XEDEA.....	1
2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.....	1
3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK.....	2
4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA.....	3
5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK.....	4
6.- OKERREN ZUZENKETA.....	5
7.- EBAZPENA.....	5
8.- SEPIEren LAGUNTZA EKONOMIKOAK ERASMUS+ PROGRAMAN.....	6
9.- MUGIKORTASUN IKASLEAREN BETEBEHARRAK (ERASMUS, AMERIKA LATINOA ETA BESTE NORAKOAK).....	6

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da UPV/EHUren Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak kudeatzen dituen nazioarteko mugikortasun programetan 2017/18 ikasturtean parte hartuko duten graduako zein 90 eta 120 ECTS kredituetako masterretako ikasleak hautatzea.

Hauek dira programak:

Erasmus+ programa, Latinoamerika programa, Beste Norako Batzuk programa.

2.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

2.1.- Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean errefuxiatu, herrigabe, egoiliar iraunkor, egoitza-baimena indarrean duen aldi baterako egoiliar edo ikasketa egonaldirako baimena izan beharko du mugikortasun osoa iraun bitartean eta herrialdeko legeria beteaz.

2.2.- Ikasleak, gutxienez, **graduako 2. mailan edo masterreko 1. mailan** egon beharko du matrikulatuta UPV/EHU **eskaera egiterakoan**. Mugikortasuna

egingo duen ikasturtean ere (2017/2018) UPV/EHU n matrikulatuta egon behar du ikasleak.

2.3.- Aldez aurretik diplomaturako, lizentziaturako edo graduako ikasketak eginda izan eta graduako titulazio berri baten 1. maila edo 1. mailako moduluren bat ikasten hasi diren ikasleek titulazio berriko 2. mailan daudenean aurkeztu ahal izango dute eskaera aipatutako mugikortasun programetarako.

2.4.- Ikasleak helburuko erakundean jasoko dituen irakasgaiei dagokien **hizkuntzaren jakite-maila egoki eta nahikoa** izan beharko du. Zenbait unibertsitatek hizkuntzaren jakite maila espezifikoak eskatzen dituzte.

Nazioarteko Harremanetako bulegoak esleitzen dituen Amerika Latinoa eta Beste Norakoak programen plazen kasuan (Atzerriko unibertsitateen taulako IKASTE GI AK zutabe an DENAK gisa markatutakoak) atzerriko unibertsitateak eskatutako hizkuntza agiriaren kopia (ikus norako en taula) aurkeztu beharko da Leioako Nazioarteko Harremanetako bulegoan, **oinarri hauen 4 puntuan** adierazitako **eskaerak aurkezteko epearen barruan**. Hizkuntza agiriaren kopia horretarako prestatutako formularioaren bidez igo beharko da:

<http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/hizkuntza-mailen-ziurtagiria-aurkezteko-formularioa>.

2.5.- Baldintza hauek UPV/EHUko ikasle guztiei aplikatuko zaizkie. Bestalde, ikasleak matrikulatuta dagoen ikastegiko nazioarteko Harremanetako koordinatzaileari galdetu behar dio ea ikastegiak bete behar gehiago eskatzen dituen. Ikastegiaren bete behar espezifikoak hertsia goak izan daitezke, inoiz ez Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak jarritakoak baino malguagoak.

3.- MUGIKORTASUN PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO MUGAK

3.1.- **Ikasturteko mugikortasun bat besterik ezin** da egin unibertsitate bazkideetan. Erasmus programaren kasuan ikasleak aukera izango du ikasturte berean ikasketa mugikortasun bat + praktika mugikortasun bat egiteko (ikasketa planean agertzen ez diren borondatezko praktikak enpresetan).

3.2.- Helburuko unibertsitatean, **gehienez, ikasturte bat** pasatu ahalko da.

3.3.- Mugikortasun egonaldiaren iraupena UPV/EHU eta atzerriko unibertsitatearen artean sinatutako bi aldeko hitzarmenean ezarritako berbera izan behar da. Esate baterako, hitzarmen bat ikasle batentzat eta 9 hilabetetarako sinatuta baldin badago, plaza horretarako hautatutako ikasleak 9 hilabetetako egonaldia egin beharko du. Errektoreordetzak kontuan hartuko ditu UPV/EHUko ikastegietatik egonaldien iraupenak aldatzeko egin daitezkeen eskaerak beti ere egokiro argudiatuta baldin badaude. Behin horiek aztertuta errektoreordetzak baietza edo ezetza emango die eskaerei.

3.4.- Gehienez ere, mugikortasuneko bi ekintzatan parte ahal izango da ikasten den titulazio bakoitzeko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak kudetazen dituen lau programen barruan (Erasmus, UPV-AL, BNB eta SICUE), baina, beti ere, akademi ikasturte ezberdinetan. Arlo honetan, Erasmus+ programaren barruan bi mugikortasun egin ahal izango dira gehienez, baina beste programetan ezin izango da bigarrenagoz parte harte.

3.5.- Ikasleak 12 hilabetetako mugikortasun bat egin ahal izango du ziklo bakoitzeko Erasmus ikasketa mugikortasun programan (gradu, master eta doktoregoan). Hamabi hilabete hauen barruan Erasmus Praktikak delako programan pasatutako 3 hilabeteak ere zenbatuko dira.

Ondorio hauetarako, Beste Norako Batzuen programan KA107 programako bekarik lortzen duen mugikortasuna Erasmus+ programako mugikortasun gisa zenbatuko da.

3.6.- Ikasleek UPV/EHU-AL eta Beste Norako Batzuk programetan birritan partzeko eskaria egingo ahal dute, betiere lehenengo mugikortasunean egiten ari zen titulazioa eta bigarrenean egiten ari dena desberdinak badira.

3.7.- Mugikortasun programa batean inoiz parte hartu ez duenak plaza bat lortzeko lehentasuna izango du nazioarteko bigarren egonaldia eskatzen dutenen aurrean titulazio berean edo beste batean.

4.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

Eskaera GAUR aplikazioaren bidez aurkeztuko da, UNIBERTSITATE TRUKEA atalean. Bilboko Merkataritza Ganberako Unibertsitate Eskolako ikasleek eskaria beren ikastegian aurkeztuko dute.

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 28an hasi eta abenduaren 18an bukatuko da.

5.- ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza da UPV/EHUko edozein ikastegitako edozein ikasleri, hala eskatuz gero, esleitu ahal zaizkion nazioarteko mugikortasunerako plazen esleitzeko eskumena duen organoa (plaza horiek DENAK izenburupean ageri dira). Gainerako plazak (Erasmus eta hitzarmen espezifikokoak) ikastegiek esleituko dituzte.

Esleipena egiteko jarraitu beharreko arauak honako hauek dira:

5.1.- Plaza hauetarako hautagaitzat joko dira nazioarteko mugikortasun eskaera egitean, gutxien dela, gradu bateko bigarren mailan edo master bateko lehenengo mailan matrikulatuta dauden eta atzerriko unibertsitateek eskatutako hizkuntza ziurtagiriaren jabe diren UPV/EHUko ikasleak. Ez dira izango hautagai aurreko deialdietan mugikortasun programetako arauak ez betetzeagatik zigorra duten ikasleak.

5.2.- Hautaketa irizpideak

Hautaketarako oinarria merezimendu akademikoa izango da. Beraz, horretarako, kontuan hartuko da 2017-2018 mugikortasun deialdian hautaketa egiten denean ikasle bakoitzak doktoregora sartzeko aurkeztu duen titulazioaren batez besteko nota.

Irizpide horren arabera, esleipena honela egingo da:

- a) Lehentasuna izango dute mugikortasun programetan inoiz parte hartu ez duten ikasleek.
- b) Plazak batez besteko nota altuena duten eskatzaileei esleituko zaizkie. Xede horrekin, 1,18 zuzenketa koefizientea aplikatuko zaie irakaskuntza teknikoetako ikasleen batez besteko notari.

Ikastegiek hautaketa irizpide osagarriak aplikatu ahal izango dituzte eurek esleitu behar dituzten plazen kasuan baina, edonola ere, irizpide horiek bat egin beharko dute deialdi honetako irizpide orokorrekin, eta web orrian eman beharko dira argitara prozesua hasi baino lehenago.

c) Ikasleren batek plazari uko egingo balio, eta egutegia dela eta, posible izango balitz, libre geratu diren plazak esleipendunak izan ez diren ikasleen artean banatuko lirateke, beti ere batez besteko notarik onena hurrenez hurren dutenak kontutan hartuta.

5.3.- Plaza adjudikatuta izan eta berrori uko egin edo plaza eskuratu duten programan parte hartu nahi ez duten oinarri hauen 7. puntuaren ezarritako epeetan, plazari GAUR aplikazioan uko egin behar izango diote. Horrela egiten ez duen ikasleak ezin izango du nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu hurrengo ikasturtean.

Epe hauen ostean ustekabeko gertakariengatik eragindako ukoak justifikatu beharko dira. Errektoreordetzak aztertu egingo du ukoaren arrazoiak eta erabakiko du zigorrik jar litekeen nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzeko hurrengo akademi ikasturtean.

6.- OKERREN ZUZENKETA

Okerrak zuzendu eta erreklamazioak aurkezteko 10 egun balioduneko epea izango da (ikusitako egutegia). Epe hori igarota ez badira jaso eskatutako agiriak, eskaera bertan behera uzten dela ulertuko da. Aurkeztu gabeko agiriekin edota zuzendu gabeko okerrekin ez badiete eragiten ikaslearen eskaera orokorrean agertzen diren beste unibertsitateei, baliozkotzat hartuko dira.

7.- EBAZPENA

Emandako plazen behin-behineko zerrenda, itxaron zerrendako ikasleena eta baztertutako eskaerena Nazioarteko Harremanetako webgunean argitaratuko dira.

Lehenengo hautaketaren zerrenda 2017ko urtarrilaren 17an emango da argitara. Ikasleek urtarrilaren 24ra arteko epea izango dute esateko plaza hartzen duten ala ez. Bi kasuetako edozeinetan aukera egongo da bigarren bueltan, adjudikatutakoaren gainean, lehentasunezko gisa agertzen diren plazak lortzeko, baldin eta plaza horiek lortu dituztenek uko egin badiete.

Behin betiko esleipena (bigarren hautaketaren ondoren) otsailaren 3an emango da argitara, eta ikasleek otsailaren 9 arteko epea izango dute esateko hartzen duten ala ez bigarren hautaketan emandako plaza.

Webgune honen bidez, jarraipena egingo ahal zaio prozesu osoari. Era berean, ikasleek ikusi ahal izango dute GAUR aplikazioan beren eskariaren jarraipena.

8.- SEPIEren LAGUNTZA EKONOMIKOAK ERASMUS+ PROGRAMAN

Erasmus+ mugikortasuna izango duten ikasleek SEPIEk ezarritako laguntza ekonomikoa ere izango dute. Diru laguntza hori jasotzeko laguntza hitzarmena izenpetu behako dute.

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da SEPIEk komunikatutako zenbatekoa eta hitzarmenean sinatutako hilabete kopurua biderkatuz ateratako emaitza eta, gehienez, 7 hilabete arte. **CERTIFICATE OF ATTENDANCE** delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatzeko eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanetako bulegotik eska daiteke egiaztatu ez diren hilabeteengatik jaso diren diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.

1. taldea	Austria, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Italia, Liechtenstein, Norvegia, Erresuma Batua eta Suedia	300 euro hilero
2. taldea	Alemania, Belgika, Zipre, Kroazia, Eslovenia, Espainia, Grezia, Islandia, Luxenburgo, Herbehere, Portugal, Txekiar Errepublikak eta Turkia	250 euro hilero
3. taldea	Bulgaria, Eslovakia, Estonia, Hungaria, Letonia, Lituania, Malta, Polonia, Errumania eta Mazedoniako Errepublika Jugoslaviar zaharra	200 euro hilero

Gainerako laguntzak kasuan kasuko deialdiari jarraiki arautuko dira. Informazioa Nazioarteko Harremanetako web orrian emango da argitara, "Diru laguntzak" atalean.

9.- MUGIKORTASUN IKASLEAREN BETEBEHARRAK (ERASMUS, AMERIKA LATINOAK ETA BESTE NORAKOAK)

9.1.- ERASMUS mugikortasun beka baten onuradunak "ERASMUS ikasle gutunean" ezarritako eskubideak eta betebeharrak dituzte, <http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-Harremanak/erasmus->

unibertsitate-gutuna-2014-20 webgunean ikusi ahal direnak eta harrera unibertsitateko arauak bete beharko dituzte han dauden bitartean.

ONARPENA HELBURUKOAN

9.2.- Mugikortasun plaza lortu izanak **EZ du nahitaez esan nahi ikaslea harrera unibertsitatean onartu dutenik**. Ikaslearen erantzukizuna da harrera unibertsitatean sartzeko kudeaketak egitea. Ikasleak bete beharko ditu unibertsitate bakoitzak onarpen eskabideak aurkezteko (kasu batzuetan on line) ezartzen dituen epeak; izan ere, unibertsitate askok ez dute onartzen epez kanpo bidalitako eskaririk.

Amerika Latino eta Beste Norako Batzuk programei dagokienez, onarpen gutuna lortu ahal izateko onespen tramiteari buruzko informazioa (datak, inprimakiak...) programaren webgunean dago.

Halaber, bere ardura izango da ostatuaren gestioa unibertsitate horretan dagoen bitartean, bai eta unibertsitateak edo helburuko herrialdeak ezarriko luketen beste edozein baldintza nahitaezkorena ere. Arlo honetan, unibertsitate batzuek nahitaez ezartzen dute beraiek edo gobernuak eskainitako osasun aseguru baten kontratazioa Aseguru hauek kontratatuta ere bidaiako laguntzarako asegurua ere kontratatu behar da nahitaez, aberriratzea, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraioa barne hartzen dituen, helburuko tokian kontratatutako asegurua estaldura hauek ez baditu.

Ikaslea ez badute onartzen esleitutako tokian, Nazioarteko Harremanetako bulegoak (ikastegiko koordinatzailearekin batera), arrazoiak aztertu, eta libre legokeen beste toki bat esleitu ahal izango dio.

Ikasleak ez du tasarik ordaindu beharko harrerako unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen baitu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kopuru txikiren bat eskatu ahal izango dio ikasleari ikasleen sindikatuarentako afiliazioaren gastuei aurre egiteko, edota material ezberdinen erabileraren gastuarentako (fotokopiagailuak, laborategiko produktuak eta abar). Bertako ikasleei eskatzen zaien kopuru berbera izango da.

KONPROMISO AKADEMIKOA

9.3.- Konpromiso akademikoa (learning agreement) ikastegiko koordinatzailearekin eta helburuko unibertsitatearekin ezarritako ikasketa **kontratua** da. Bertan, harrera unibertsitatean egingo diren irakasgaiak eta UPV/EHUren ikasketa planetako kredituak adierazi beharko dira, hangoak gaindituta bertan aitortuko zaizkion kredituak, eta kontratua loteslea izan dadin, bi unibertsitateen baimen sinadurak izan beharko ditu. Ezin dira inolaz ere sartu dokumentu horretan UPV/EHU gainditzat edo suspentsotzat jotako irakasgaiak. Eta ezin izango da eskatu irakasgai horien aitortpena harrera-unibertsitatean egindako irakasgaien truke. Dena dela, matrikulatutako irakasgaiak egin ahalko dira, bai, baina horietara aurkeztu ez eta aurkezteke kalifikazioa badute.

Ikasketa planak eskatzen duen kreditu kopurua baino gehiago matrikulatu behar bada, eskatutako gutxieneko kopurura iristen ez delarik, koordinatzailearen baimena eskatu beharko da, bestela ezin izango baita matrikulan jaso.

Egonaldiaren arabera, honako kreditu hauek egin behar dira (UPV/EHU matrikulatutakoak):

15 kreditu 3 hilabetetako egonaldietarako

30 kreditu 5 hilabetetako egonaldietarako

60 kreditu akademi ikasturte osoko egonaldietarako.

Dena dela, salbuespen bezala eta koordinatzaileak hala eskatzen duenetan, honako hau ere onartuko da:

gutxienez 12 kreditu 3 hilabetetako egonaldietarako

gutxienez 24 kreditu 5 hilabetetako egonaldietarako

Gutxienez 48 kreditu akademi ikasturte osoko egonaldietarako.

Arlo honetan, gogoan izan behar dam Graduko Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegiko 12. artikularen arabera, ikasturte bakoitzean gehienez ere 60 ECTS aitortuko direla mugikortasun ekintzengatik.

ETEKIN AKADEMIKOA

9.4.- Ikasleak harrera unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko da. Hots, egonaldian konpromiso akademikoan jasotako kredituen erdia gainditu beharko du gutxienez. Ehuneko hau gainditu ezean eskatuko zaio mugikortasuna egiteko eman zaizkion laguntzak itzultzeko.

HELBURUKO HIZKUNTZA JAKITEA

9.5.- Helburuko erakundean jasoko dituen irakasgaiei dagokien hizkuntzaren jakite-maila egoki eta nahikoa izan beharko da. Zenbait unibertsitatek hizkuntzaren jakite maila espezifikoak eskatzen dituzte.

Erasmus+ mugikortasun bateko onuradunek hizkuntza test bat egin beharko dute OLS plataforman, nazioarteko Harremanetakoaren bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta.

Era berean, plaza eman ondoren, *Online Linguistic Support* aplikaziotik (OLS) ikaslearen korreo elektronikoko pertsonalera bidaliko da gonbidapen bat gaitasun linguistikoaren online derrigorrezko azterketa bat egiteko, mugikortasuna egin baino lehenago, eta beste bat, mugikortasuna egin ondoren irakaskuntzako hizkuntza nagusia alemana, frantsesa, ingelesa, italiara, nederlandera, txekiera, daniera, poloniera, greziera, eslovakiera eta portugalerara denetan, edo helburuko unibertsitatearekin horrela adosten denetan, hizkuntza horren jatorrizko hiztuna denean izan ezik. Mugikortasuna egin baino lehenago online derrigorrezko hizkuntza etsamina egiten ez bada, ezin izango da mugikortasuna egin eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko da ikaslea. Hizkuntza proga egin ezean, UPV/EHUK ez du atzerrian egindako ikasketaren onarpen akademikoa emango, eta beka itzuli beharko da.

***On line* egiten den lehenengo ebaluazioaren emaitzak baloratu ondoren, jatorrizko unibertsitateak erabakiko du beharrezkoa ote den *on line* hizkuntza ikastaroa jarraitzea, bere ikasketak edo praktikak egiteko erabiliko duen hizkuntzan. Ikastaroa hautazkoa da.**

Laguntza ekonomikoaren ordainketa derrigorrezko online bigarren ebaluazio-proba egitearen menpe egongo da. Bigarren ebaluazioa egin ezean, Erasmus beka itzuli beharko da.

MUGIKORTASUNAREN GAUZATZEA

9.6.- Ikaslea ezarritako egunean hasiko da helburuko ikastegian. Hala ez bada, mugikortasunari uko egin diola joko da. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri Nazioarteko Hedakuntzako Errektoreordetzari, GAUREn finkatutako bitartekoak erabilita. Izan ere, jakinarazi ezean, baztertuta geratuko da UPV/EHUk gerora egingo dituen mugikortasun programen deialdietako hautapen prozesuetatik.

Mugikortasunaren iraupena edo lauhilekoa aldatuz gero, ezinbestekoa izango da Nazioarteko Harremanetakoetarako Bulegoaren eta ikastegiko koordinatzailearen oniritzia; betiere, eskaeraren arrazoiak aztertu ondoren. Oniritzirik gabe aurrera eginez gero, 9.12. atalean aurreikusitako egoeretan egongo da ikaslea.

9.7.- Finkatutako epeetan (hilabete bat mugikortasuna hasi edo bukatu denetik), egonaldia eta berorren iraupena egiaztatu beharko dira, egonaldi hasierako (*Certificate of arrival*) eta amaierako (*Certificate of Attendance*) egiaztagiriekin. Atzerriko unibertsitateak behar bezala sinatu eta zigilatu beharko ditu bi horiek. Era berean, egonaldi egiaztagiria adierazten badu egin beharreko denbora baino hilabete gutxiago egin direla han, egiaztatu gabeko hilabetei dagokien dirua itzultzeko eskatuko da.

NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

9.8.- Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da (ERASMUS programaren kasuan) eta atzerriko unibertsitatara iritsi aurretik, bidaiarako aseguru bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. Aseguru horren ordainagiriaren kopia bat bidali beharko da Leioako Nazioarteko Harremanetakoaren bulegora.

9.9.- Mugikortasunari hasiera eman aurretik, GAUR plataformako profilean dagoen subentzioen hitzarmena sinatuta aurkeztu beharko da (ERASMUS subentzio hitzarmena, AL/BNB subentzio hitzarmena, Errektoreordetzak AL/BNB programarako laguntza bat emana izanez gero), bai eta aseguruaren kopia bat ere. Egonaldia amaitu ostean, IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA egin beharko da, web gunearen bidez.

9.10.- ERASMUS mugikortasunen kasuan, ERASMUS, bulego honek jasotako *Certificate of Attendance* delakoaren datak tresnan sartu ondoren, tresna

horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei **azken txostena** betetzeko.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatzen dizugu, mesedez, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektronikoko bat jasoko duzue **REPIES-WILL-BE-DISCARDED@EC.EUROPA.EU** helbidetik (letra xehez) eta *Spam* karpetera irits daiteke. Bertan esteka bat ematen da online txostena baliatu ahal izateko eta jaso eta 30 egun naturalen epean itzultzeko.

De: replies-will-be-discarded@ec.europa.eu

Asunto: [Solicitud de informe individual del participante Erasmus+ / Erasmus+ individual participant report request /](#)

Inkesta bete ezean, jasotako laguntza itzultzeko eska daiteke, eta ERASMUS mugikortasunaren aitortpena gal daiteke.

9.11.- Hala eskatzen duten herrialdeetan egonaldia egiteko edo bertara sartzeko beharrezkoak diren bisatuak eskuratzeko izapideak egin beharko dira; eta joan aurretik egin beharko da, halaber, atzerriko unibertsitatean sartu ondoren herrialde horretan egoteko beharrezkoa den beste zeinahi administrazio izapide. Ez da Nazioarteko Harremanetakoaren bulegoaren erantzukizuna izango izapide hori egitea ahazteagatik ikasleak mugikortasunerako aukera galtzen badu.

EGONALDIAREN LUZAPENAK

9.12.- Adierazitako hilabeteak baino egonaldi luzeagoa egin nahi izanez gero (beti ere ikasturte akademiko berean 12 hilabeteko egonaldiko luzaera gaintu gabe), koordinatzaileen baimena beharko da (jatorrizkoarena eta atzerriko unibertsitatekoarena). Egonaldia soil-soilik luzatuko da ikasketak kontratuan (*Learning Agreement-Konpromiso Akademikoa*) aldaketak egonez gero. Eta orduan ere, mediku aseguru gehigarriaren indarraldia luzatzen dela dioen agiriaren kopia aurkeztu beharko da. Horrez gain, UPV/EHUko ikastegiak Nazioarteko Harremanetako Bulegoari idatziz egonaldia luzateko baimena eskatuko du.

Erasmus ikasleek OLS plataforman egonaldiaren amaierako data aldatu behar izango du.

Egonaldi luzapen hori ez da izango, inola ere, automatikoa; eta ez du ekarriko, luzapeneko hilabetei dagokien finantza laguntza jasotzeko eskubidea.

EZ BETETZEAK

9.13.- Betebehar hauek guztiak inolako azalpenik gabe bete ezean, hainbat ondorio etor litezke: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, finantza hitzarmena ezeztatzea (eta ondorioz, aurretik jasotako finantza laguntza guztia itzultzeko derrigortasuna) eta errektoreordetatik gerora sustatutako zeinahi mugikortasun programatako hautapen prozesuetatik kanpo geratzea.

Era berean, kreditu, hizkuntza eta bestelako baldintzarik beteko ez balitz helburuko unibertsitatera iristerakoan, bertan behera geratuko da automatikoki programan.

9.14.- Aurreko 9.13 atalean dirua itzultzeko ezarritako beharra osorik edo zatika bete ezean eta egoera honek dirauen bitartean, debekatuta egongo da matrikula, titulu emate, kalifikazio berririk egitea, bai eta espediente akademikoari buruzko informazio oharrak lortzea ere. Era berean, ezin izango dituzte UPV/EHUren gainerako zerbitzuak erabili.

OHARRA: - Unibertsitateak ez du bere bizkar hartuko ikasleak sortzen duen inolako gasturik (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak, etab.), azkenean, ikasleak bidaia egin ezin badu.